

**DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAU-N ONDOKO LAN POLTSA SORTZEKO DEIALDIA ETA HAUTAKETA PROZESUA:
MARKESINEN GARBIKETA (DESGAITUAK)**

- **3. FASEKO ELKARRIZKETA ETA ANALISI PERTSONALAREN BEHIN BETIKO EMAITZA**
- **4. FASEKO MEREZIMENDUEN BALORAZIOAREN BEHIN BETIKO EMAITZA**
- **BEHIN BETIKO AZKEN KALIFIKAZIOA**

Lehena.- Alegazioak aurkezteko epea bukatu da eta alegazio bat ere aurkeztu ez denez, argitara ematen dira Markesinen Garbiketarako Lan Poltsa (Desgaitasuna) osatzeko hautaketa prozesuko **3. Faseko Elkarrizketa eta Analisi Pertsonalaren eta 4. Faseko** Merezimenduen Balorazioaren **behin betiko emaitzak**. (1. eta 2. ERANSKINAK).

Bigarrena.- Argitara ematen da hautaketa prozesua gainditu duten hautagaien **Behin betiko Azken Kalifikazioa**. Hautaketa Prozesuaren fase bakoitzean lortutako kalifikazio partzialak batuz lortutako kalifikazioa da. Azken kalifikazio horrek Lan Poltsako hurrenkera zehaztuko du (3. ERANSKINA).

Hirugarrena.- “**Lan poltsan sartu, eta lan poltsa osatu eta gestionatzea**”-ri buruzko informazioa, Deialdiaren Oinarrien arabera:

Hautaketa prozesua gainditu duten hautagaiek Markesinen Garbiketarako Lan Poltsa osatuko dute (desgaituentzat erreserbatutako lan poltsa), eta horrek eskubidea emango die lehenbailehen bete behar diren eta atzeratu ezin diren behin-behineko langile premiei erantzuteko, betiere salbuespenezko kasuak badira, eta beti aldi baterako kontratuen bitartez. Halere, gerta daiteke, plazaren izaeragatik eta betiere horretarako lege estaldura baldin badago, behin betiko lanpostuak estaltzeko ere izatea.

Lan poltsaren gestioa azkenean lortutako puntuazio globalaren hurrenkerari jarraituta egingo da. Hurrenkera horren arabera lehentasunak ezarriko dira. Barne deialdian onartutako hautagaiek lehentasuna izango dute besteen aurretik.

Hautagai batek lehenengo lan eskaintzari uko eginez gero, beste 2 aldiz gehiago deitu ahal izango diote. Beraz, hirugarren deiarri uko egiten badio, lan poltsatik kanpo geldituko da.

Lan poltsak bi urtetarako izango dira, behin betiko zerrendak argitaratzen diren egunetik hasita.

Halere, arrazoi operatiboak direla eta, lan poltsak beste bi urtez luzatu ahal izango dira.

Osatu den Lan Poltsan egotearen ondorioz Donostiako Trabia Konpainia SAUn lanean hasten badira, 2 hilabeteko probaldia egin beharko dute. Probaldiak irauten duen bitartean, bai langileak bai Enpresak proba egiteari edo kontratua ez berritzeari uko egin diezaioke, hurrenez hurren, aurrez jakinarazi gabe. Hori gertatzen bada, aldeetako batek ere ez du kalte-ordainerako eskubiderik, eta langileak lan egindako egunei dagokiena baino ez du kobratuko. Dena dela, unean-unean Donostiako Tranbia Konpainia SAUn kontratazioari eta jardueraren balorazioari buruz indarrean dauden arauen menpe egongo dira, kontratazio modalitatea edozein dela ere.

Hautaketa Prozesuan zehar, Hautaketa Batzordeak egiaztatu ahal izango du hautagaiek aurkeztutako dokumentazioa eta emandako informazioa egiazkoa dela eta, hautagairen batek informazio edota dokumentu faltsuak aurkeztu baditu, hautagai hori deialditik kanpo utzi ahal izango du automatikoki.

Hautaketa Prozesuaren garapenarekin lotura duen informazio guztia jakinarazpenerako honako bide ofizial hauetan argitaratuko da:

- Web orria: www.dbus.eus/es/otros-servicios/seleccion-de-personal/
- Donostiako Tranbia Konpainiako iragarki taula (Fernando Sasiain, 7. Donostia-San Sebastian).

Izpta. Hautaketa Batzordea
Donostia, 2018ko urtarrilaren 24a

1. ERANSKINA:**3. Faseko elkarrizketa eta analisi pertsonalaren behin betiko emaitza**

NAN	3. FASEA PUNTUAZIOA (gutxienez 12/20 puntu)
34105168D	13,75
44148487X	EZ DA GAI

2. ERANSKINA:**4. Faseko merezimenduen balorazioaren behin betiko emaitza.**

NAN	4. FASEA EUSKARA (gehienez 5 puntu)	4. FASEA ESPERIENTZIA (gehienez 10 puntu)	4. FASEA GUZTIRAKO PUNTUAZIOA (gehienez 15 puntu)
34105168D	0,00	0,00	0,00
44148487X	5,00	0,00	5,00

3. ERANSKINA: Behin betiko azken kalifikazioa.

NAN	AZKEN KALIFIKAZIOA
34105168D	65,30